

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	EKIPAMENDUEN ETA MAKINEN MANTENTZE-LANETAKO ERAGIKETA OSAGARRIAK LURPEKO ETA AIRE ZABALEKO INDUSKETETAN	Iraupena	50
		Baldintzatua	
Kodea	UF1143		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meataritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Indusketako eta fabriketako tresneria eta instalazioen muntaketa eta mantentze-lan mekanikoetako eragiketa osagarriak	Maila	1
Prestakuntza-modulua	Ekipamenduen eta makinaren muntaketa eta mantentze-lanetako eragiketa osagarriak lurpeko eta aire zabaleko indusketetan.	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ekipamenduen eta makinaren muntaketako material-prestaketa eta eragiketa osagarriak lurpeko eta aire zabaleko indusketetan.	Iraupena	70

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1318_1 LURPEKO ETA AIRE ZABALEKO INDUSKETETAN EKIPAMENDUEN ETA MAKINEN MUNTAKETA ETA MANTENTZE-LANETAKO ERAGIKETA OSAGARRIAK EGITEA gaitasun-ataleko LB3 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Zulaketako, indusketako, euspeneko, kargatzeko edota garraiatzeko ekipamenduen mantentze-lanetarako eragiketa osagarriak deskribatzea eta aplikatzea, makinaren erabilera-eskuliburuan ezarritakoari jarraituz eta segurtasuneko barne-xedapenen arabera.

E1.1 Erabilera-eskuliburuetatik abiatuta, aldian behin berrikusi eta mantentze-lanak egin beharreko puntuak adieraztea, eta bere eskumeneko mantentze-eragiketak adieraztea.

E1.2 Eragiketa guztiak gauzatzeko makinak eduki behar duen egoera adieraztea.

E1.3 Ekipamenduaren gainean interpretatzea erregai-adierazleak, bateria-kargaren maila, iragazkiak, olio- eta hozgarri-mailak, koipeztatze-puntuak eta bestelakoak, makinaren erabilera eskuliburuaren barnean hartuta daudenak.

E1.4 Makina koipeztatzeko jarraitu beharreko prozedura deskribatzea eta koipe motak identifikatzea.

E1.5 Olio-motak -hidraulikoak eta koipeztatzeak- definitzea, oinarriko propietateak adierazita.

E1.6 Pneumatikoen puzte-presioa egiaztatze prozesua eta horretarako erabili beharreko tresnak deskribatzea, istripurik ez izateko pneumatikoak nola puztu behar diren azalduta.

E1.7 Beldar-kateen mantentze-lanetarako jarraitu beharreko prozedura azaltzea.

E1.8 Elementu suntsikorak edo hondatuak aldatzeko edo ordezkatzeko jarraitu beharreko eragiketak zehaztea: pikak, diskoak, iragazkiak, lanparak, fusibleak, uhalak, tenkagailuak, eragingailuak eta bestelakoak.

E1.9 Ekipamenduak eta osagai jakin batzuk garbitzeko prozesua xehatzea.

E1.10 Suteen aukako sistema egiaztatze prozedura deskribatzea.

E1.11 Matxura nagusiak, horien kausak, eta kasu bakoitzean jarduteko prozedura zerrendatzea, eroapen edo manipulazio seguruan eragina duten edo/eta ekipamendua honda dezaketen anomaliak adierazita, eta baita berehala konpontzeko jakinarazi behar diren eta ekipamendua geldiaraztea eta uztea edota atoian eramatea eragiten duten matxura bereziak ere.

E1.12 Ekipamendu mugikorraren mantentze prebentibo eta zentzatzailako fitxa behar bezala interpretatzea eta betetzea.

E1.13 Arduradunari zulaketako, indusketako, euspeneko, kargatzeko eta garraiatzeko ekipamenduen mantentze-lanetan laguntzea, zehazki, honako eragiketa hauetan:

- Olio-maila, hozgarri-maila, erregai-maila eta elektrolito-maila guztiak berrikustea.
- Gutxienekotik behera dauden mailak substantzia egokiarekin betetzea, zehazki, makinaren erabilera-eskuliburuan eta mantentze prebentiboko fitxan agertzen den moduan.
- Makina koipeztatzea edota koipe-tanga betetzea, koipeztatze automatiko zentralizatuaren kasuan.
- Olio-aldaketa.
- Iragazkien, lanparen eta bestelako elementuen aldaketa.
- Ekipamenduaren eta bestelako elementuen garbiketa, behar badute.
- Pneumatikoen puzte-presioa egiaztatzea, eta beharrezkoa bada, horiek puztea.
- Ihes eta jarioen detekzioa.
- Makinaren mantentze prebentiboko fitxa betetzea eta egindako eragiketak adieraztea.

Edukiak:

1. Lurpeko eta aire zabaleko indusketetako makinaren bastidoreen eta kabinen mantentze-lanak.

- Elementu higatuak edo hondatuak.
- Garbitzea, koipeztatzea eta lubrifikatzea.
- Zirkulazioaren eta eragiketaren inguruko seinaleztapen-elementuak:
 - Egiaztapenak.
 - Elementu suntsikorak ordezkatzeko.
- Kontrol-tresnak:
 - Adierazleak eta mailak egiaztatzea.
 - Adierazitako anomaliak eta matxurak detektatzea.
- Alarma-panelak:
 - Egiaztapenak.
 - Jardun-prozedura.
 - Segurtasun-gailuak.
- Eragiketa-elementu osagarriak:
 - Elementu suntsikoren egiaztapena eta ordezkapena.
 - Matxura nagusiak.
 - Konponketa.

2. Lurpeko eta aire zabaleko indusketetako makinaren motorren mantentze-lanak.

- Sistemak:
 - Koipeztatzea.
 - Hoztea.
 - Elikadura.
- Emisio-sistemak:
 - Ke-tratamendua.
 - Katalizatzaileak.
 - Garbiketa-kaxak.
- Babesgarrien egiaztapena:
 - Mekanikoak.
 - Termikoak.
 - Hozte-zirkuituenak.
- Mailen egiaztapena:
 - Betetzea.
 - Olio-aldaketa.
 - Koipeztatzea.
- Iragazkiak eta bestelako elementu suntsikor eta higadurazkoak:
 - Berrikuspena eta aldaketa.
 - Osagaien garbiketa.
 - Matxura nagusiak.
 - Konponketa.
 - Abiaraztea eta egiaztapenak.

3. Lurpeko eta aire zabaleko indusketetako makinaren transmisioen mantentze-lanak.

- Lubrifikazioa eta koipeztatzea.
- Garbiketak.
- Verificación de:
 - Mailak eta betetzea.
 - Higadurak eta tenkaketa.
 - Jarioak.
 - Lerrokadurak, bibrazioak eta soinuak.
- Matxura nagusiak:
 - Matxuratutako piezen ordezkapena.
 - Abiaraztea eta egiaztapenak.

4. Lurpeko eta aire zabaleko indusketetako makinaren sistema hidraulikoen mantentze-lanak.

- Ihes eta jarioen detekzioa.
- Iragazkien ordezkapena.
- Adierazleen eta mailen egiaztapena.
- Tenperaturaren egiaztapena.
- Presioa mugatzeko balbulak eta beste hainbat balbula egiaztatzea eta doitzea.
- Funtzionamendu-parametroen egiaztapena.
- Sutzen zailak diren likidoen konposizioaren egiaztapena.
- Matxura nagusiak:

- Matxuratutako elementuen ordezkapena.
- Abiaraztea eta egiaztapenak.

5. Lurpeko eta aire zabaleko indusketetako makinaren lan-ekipamenduen mantentze-lanak.

- Honako hauen egiaztapena:
 - Elementu suntsikorrak, higadurazkoak eta/edo hondatuak.
 - Pneumatikoak, puztea eta ordezkatzeta.
- Desplazamendu-sistemen ordezkapena edota konponketa, gurpilak, beldar-kateak eta sistema gidatuak.
- Beldar-kateen tenkaketa eta mantentze-lanak.
- Esekidura eta indargetzea.
- Indusketa-tresnen mantentze-lanetako eragiketak, erabilera-eskuliburuari jarraikiz.
- Ekipamenduen garbiketa.
- Matxura nagusiak:
 - Zilindroen edota tornuzilen egiaztapena eta ordezkapena, hala badagokio.
 - Abiaraztea eta egiaztapenak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko eskakizunik

Prestakuntza-atal hau egiteko gaitua izan behar du UF1142 Ekipamenduen eta makinaren muntaketako material-prestaketa eta eragiketa osagarriak lurpeko eta aire zabaleko indusketetan.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Indusketako eta fabriketako tresneria eta instalazioen muntaketa eta mantentze-lan mekanikoetako eragiketa osagarriak